

Bergara eta Oñatiko Eskolako Agenda 21a

buletin digitala

Gizakiok sorturiko hondakinen kudeaketarekin asmatzea erronka handia da. Hondakinen pilaketek eragindako arazoak geroz eta kezkarriagoak izanik, haiei konponbidea jartzeko saiakeran buru-belarri

murgiltzea ezinbestekoa da. Beste hainbat alorretan bezala, hondakinen sorreran ere gizabanakoen erantzukizuna argia da, etorkizuneko bideak guztion artean erabaki beharko direlarik.

Agenda 21 Escolar de Bergara y Oñati

boletin digital

Acertar con la fórmula mas adecuada para gestionar los residuos generados por el ser humano se ha convertido en un gran reto. Cada vez son más preocupantes los problemas derivados de la acumulación de residuos, por lo que involucrarse a fondo en

su solución resulta ineludible. Al igual que en otros tantos aspectos, en la generación de residuos también la responsabilidad de cada persona es clara. En consecuencia, el camino a recorrer deberá ser decidido entre todos y todas.

Ume eta gazteak gizartearen osagai

Eskolako Agenda 21a Komunitatearen partaidetzan oinarrituriko ingurumen-hezkuntza programa denez, aurtengo ikasturtean, bai Bergara zein Oñatiko ikasleek hondakinen pilaketen arazoa ulertu eta ikertzen ari dira. Gaia zinez korapilatsua da, eta hari heltzeko moduak anitzak. Hala, irailean hasitako lanak maiatza aldera emango ditu fruituak, orduan plazaratuko baitira ikasleek lorturiko emaitzak eta proposaturiko ideiak.



Niñ@s y jóvenes, parte de la sociedad

La Agenda 21 Escolar es un programa de educación ambiental basado en la participación comunitaria, por lo que tanto el alumnado de Bergara como el de Oñati están tratando de entender y analizar el problema de la acumulación de residuos. El asunto es muy complejo y las formas de encararlo son diversas. El trabajo iniciado en septiembre dará sus frutos en mayo, ya que será entonces cuando se harán públicos los resultados logrados por el alumnado, así como sus propuestas.

Helburua: diagnostia eta proposamenak

Bi herrien artean ia 4000 ikasle dira lanean gogotsu dabiltzanak, maila bakoitzari egokituriko eginbeharrei aurre eginez. Urratsez urrats, haur hezkuntzatik batxilergora, orokortasunetik xehetasunetara. Diagnostian eskuraturiko emaitzen ondotik, antzemandako gabeziak osatzeko, proposamenak luzatzeko garaia iritsiko zaie herriko gaztetxoiei.



Objetivo: diagnóstico y propuestas

Son casi 4000 alumnas y alumnos los que están trabajando activamente, afrontando las tareas correspondientes a cada curso. Paso a paso, desde la educación infantil al bachillerato, desde las generalidades a los detalles. Los resultados obtenidos en el diagnóstico darán paso a la fase de propuestas para mejorar las carencias detectadas. Estas también serán elaboradas y manifestadas por el alumnado del municipio correspondiente.

Etorkizunari irria marratzen

Herritarrei zabalduko parte-hartze prozesuarekin batera aurrera doan ibilbide honek etorkizun iraunkorragoan du jomuga. Izan ere, herritarren partaidetzan oinarrituriko ekimen honi esker, herri bakoitzeko ikastetxeek, dagokion udalarekin batera, aurrerapauso berri bat emango dute bizi-baldintzak hobetzearen alde.



Dibujando una sonrisa al futuro

Este camino paralelo al proceso participativo abierto a la ciudadanía tiene como meta un futuro más sostenible. Así, gracias a esta iniciativa basada en la participación ciudadana, los centros escolares de cada municipio, junto al ayuntamiento correspondiente, darán un nuevo paso adelante para mejorar las condiciones de vida de la ciudadanía.